



tolosaldeko
ataria

Turismo gehigarria



2017-07-20
107.6 fm
www.ataria.eus

Tolosaldea turismo ekosistema

ZENTZUMENAK ZABALIK BISITATZEKOA

Begiak zabalik, eskuak luzatuta, belarriak erne, sudurra garbi eta ahoa kokx egiteko prest. Bisitaria horrela gerturatuko da Tolosaldera bost zentzumenak adi dituela, detailerik galdu gabe etxera bueltan oroimen goxoarekin bueltatzeko.

Naiara Roldan de Aranguiz

Bertako izan, zein kanpoko izan. Bisitan etorri, zein bisita hartzaile izan. Lehenengoz ikusi, zein behin eta berriz begi berriekin ikusi. Bakarrik, bikoteka, kuadrillan zein familian ikusi, sentitu eta disfrutatzea. Atsedean hartu asmoz, zein bihotza borborka sentitzeko asmoz.

Pausoz pauso kale izkina bakoitzean, bidegurutze bakoitzean, aukera zabalak artean hautatu beharra, baldosak markatzen duten erritmoan. Hogeita zortzi proposamen zabalik, giltzen beharrik gabe. Kotxean gidari, errepidean zigi-zaga, bihurgune bakoitzaren bueltan, inguruak tonalitate berriz jantzirik azaltzen zaio gidariari.

Bost zentzumenak zabalik bisitatzea da Tolosaldea; azoketan barrena usaimena dantzan jartzekoa, aukera gastronomikoaz dastamena lanean hastekoa, begiratokietara igo eta ikusmena adi-adi aktibatzea, natura bertatik bertara izan eta ukimena geldi ez mantentzea, eta zergatik ez, kultur aukera zabalari heldu, kontzertu bat aukeratu eta entzumen fintzeka parada ere luzatzen du Tolosaldea.

Aukerez beteriko eskualdea da Tolosaldea, norberak berea bilatu eta ondo aukeratzeko dago gakoa. Horretarako, lagin modura, baliagarri izateko asmoa dute hurrengo orrialdeetako proposamenek. Aukeratu ezazu zurea!



**TOLOSALDEA
ETA GASTRONOMIA**



MUSEOAK



KULTUR IBILBIDEAK



ABENTURA



NATURA

AZALA: IBAI LUQUE | TESTU ETA ARGAZKIAK: ITZEA URKIZU, IMANOL GARCIA LANDA, IÑIGO OTAEGI ETA NAIARA ROLDAN DE ARANGUIZ



OSTEGUNA, 2017KO UZTAILAK 20

Argitaratzailea:

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM

Lege Gordailua: SS-1323-2013

Koordinatzailea:

Naiara Roldan de Aranguiz.

Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe.

Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.

Telefonoa: 943 65 56 95.

E-posta: ataria@ataria.eus

Publizitatea: 661678 818.publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus

Villabona-Aiztondo: 687 410 022.

villabona-aiztondo@ataria.eus

Anoeta: 687 410 022.

anoeta@ataria.eus

Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus

Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@ataria.eus

Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus

Bezero arreta zerbitzua: 902 82 02 01





www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orea, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:





Publirreportajea

EZAGUTU TOLOSALDEA

Udan ere Tolosaldea beso zabalik da bisitariak hartzeko. Tolosaldea Tour-ek uztaila, abuztua eta irailera begira galdu ezinezko proposamen zabala landu du: bisitaldi gidatuak, antzerki-bisitak, dastatu beharreko tokiko gastronomia... Zatoz eta ezagutu Tolosaldea.



Tolosa, eskualdeko hiriburua, Gaztela, Nafarroa eta Frantziako bideturutzan sortua; errementari, arotz, argin, artisauek eta salerosleek antzinako hiribildua. Gaur egun azoken tradizioa bizirik mantentzen du, urtean zehar, larunbatero, asteroko azoka ospatuz. Azokek hiru kokaleku hartzen dituzte produktuari erreparatuta: Zerkausiko eraikinean, bertako produktuen azoka egiten da; Berdura plazan, lore eta landare azoka biltzen da, eta Euskal Herria plazan arropak eta kanpo produktuak topatu daitezke.

Tolosak gaur egun Erdi Aro garaiko bere sei kale luzeak mantentzen ditu, zehar kale txikiagoak eta Gaztelako atearekin batera. Horietan barrena paseatu eta garai bateko hiribilduan murgildu zaitezke.

Uztaila, abuztua eta irailean azokako protagonistak tomateak, Ibarrako piperrak eta sagarrak dira. Ezagutu itzazu gure taberna eta jatetxeek produktu hauek oinarri hartuta, gure sukaldeko kuttunak, sortutako pintxo eta errezetak.

Turismo bulegoak eskaintzen dituen bisita gidatuak baliatuta Tolosa sakonki ezagutzeko aukera izango duzu:

TOLOSAKO AZOKARA BISITA

Tokiko produktua oinarri duen pintxo dastaketa eta edariarekin*

Irteera: 11:00. Prezioa: 6 euro.

*Bisita bazkari batez osatzeko aukera duzu: Tolosako babarrunak eta Ibarrako piperrak dastatuz!

SANTA MARIA ELIZARA BISITA

Irteera: 16:00. Prezioa: 3 euro.

Uztaila, abuztua eta iraileko larunbatetan.

TOLOSAKO ALDE ZAHARRA

Irteera: 12:00. Prezioa: 3 euro.

Uztaila, abuztua eta irailean, egunero.

*Bisita bazkari tipiko batez osatzeko aukera duzu: Tolosako erretegi ospetsuetako batean txuleta dastatuz.

Izen emateak Tolosaldea Tour turismo bulegoan. Telefona: 943 697 413 | tour@tolosaldea.eus | www.tolosaldea.eus

Umeekin bazatoz galdu ezinezko bi plan dira ondorengoak:

TXINDOKIKO ITZALA

Aralar Parke Naturalaren atarian tirolinaz osatutako abentura parkea.

Gure agenda kontsulta ezazu arroilen jaitsiera, gau bisitak, edota gazta ekoizleen lana gertutik ezagutzeko. www.txindokikoitzala.com.

TOPIC MUSEOA

Txotxongiloen etxeak umeei zuzendutako antzerki-bisitak eskaintzen ditu. www.topictolosa.com





“Gure helburua turismoa sektore ekonomiko gisa garatzea da; lanpostuak sortu ahal izatea”

Olatz Ilarregi Tolosaldea Garatzeneko Turismo saileko arduraduna

Itzea Urkizu

Bidaiatzea pasio zuela-eta, afizioa ofizio bilakatzeko erabakia hartu zuen turismo ikasketak aukeratzera, eta hamarkada beteko du, laster, Tolosaldea Garatzeneko turismo teknikari lanetan. Olatz Ilarregi (Urnietan, 1980) errekor urtea espero du aurrean, baina argi dauka Tolosaldea ez dela sekula turismo masifikazioen gune bilakatu.

Udako denboraldia hasi da, zein aurreikuspen duzue?

Gipuzkoako Foru Aldundiak lankidetzat bat egiten du Deustuko unibertsitateko turismo graduarekin, eta zenbait txosten egiten

ari dira. Lehen lauhilabeteko emaitzak argitaratu berri dituzte, eta badirudi azken urteotako gorakadarekin jarraituko dugula, eta aurtengoa ere errekor urtea izango dela. Gure eskualdean alojamentuen gehiengo nekazal turismoa eta landetxeek osatzen dute, baina Nekatur-ek ere iragarri du: aurrean erreserbetan, ia okupazioan izandako datuak dituzte. Horrek esan nahi du, datozen hilabeteetan ia bermatuta dutela igoera. Horregatik, pentsatzen dugu Tolosaldean ere bisitarien igoera hori nabaritu dela, eta pozik gaude guztia prestatzen.

Zein izan daiteke bisitari kopurua hazi izanaren arrazoiak?

Uste dut, batetik, eragin handia izan duela

ETAk su etena iragarri izanak. Hemen bizi garenontzako gezurra dirudi, baina Andaluzian eta beste zenbait tokitan bazegoen hona etortzeko beldur hori.

Horrez gain, beste hainbat faktore daude: kultur hiriburutza, kanpo-merkatuetan egiten ari diren promozioak,.... Horren harira, estatutik kanpoko turistak gero eta gehiago bisitatzeko gaituzte. Guretzako oso interesgarria da hori, izan ere, turista atzeritar horrek jabetzetan nahiz establezimenduetan kontsumo altuagoa egiten du, estatuko turista batek baino.

Espainia hegoaldeko herritarrentzako Euskal Herria ez da helburu turistiko merke bat, baina, aldiz, Europa iparraldeko leku batzuekin alderatuta, Euskal Herria merkeagoa da; horrek ere eragin zuzena du, noski.

Tolosaldea Garatzenen aldetik, zein da turismo estrategia?

Gure helburua turismoa sektore ekonomiko gisa garatzea da; lanpostuak sortu ahal izatea. Ikusten dugu turismoa oso eragin positiboa duela, beste hainbat sektoreen osagarri izan daitekeelako. Tolosan, adibidez, bertako biztanleen kontsumoarekin batera, turistek ahalbidetzen dute merkataritza eta ostalaritza zerbitzua mantentzea, eta zerbitzu hobea eskaintzea. Era berean, landa ingurunean, kanpo-turismo hori onuragarria da, herri txikiak oso ostalduerantzako eta lehen sektorearentzako. Beraz, esan dezakegu turismoa Tolosaldeko ekonomiaren osagarri dela, ez baita hiriburuetan adina garatu.

Zein dira Tolosaldean arrakasta handiena duten interesguneak?

Jende gehien erakartzen duten guneak bi dira: Tolosa eta Larraitz. Horrez gain, Hernio ingurua ere indarra hartzen ari da, eta zenbait turista erakartzen ditu. Garatzen ari den zonaldea da, eta proiektu politika atera daitezke.

Tolosaldea bisitatzeko duten artean, ba al da profil zehatzik?

Familia asko etortzen dira, eskualdeko alojamentu motagatik, eta joera hori Larraitz inguruan nabaritzen da gehien. Tolosan, berriz, bikoteak gehiago izaten dira. Jatorriari dagokionez, kataluniarrak eta madrildarrak izaten dira nagusi.

Era berean, txangozale asko jasotzen dituzte Tolosaldeak, hiriburuetatik-eta egunpasan jende asko etortzen baita.

Aurrera begira, ba al duzue erronka edo helburu berririk?

Bai, hainbat proiektu ditugu esku artean. Gure lanildoak beti natura, turismoa eta gastronomia izan dira, baina, egia esan,

kulturaren inguruan ideia eta egitasmo berriak sortzen ari dira, familia turismoari begira. Datorren urtean, adibidez, 200 urte beteko dira Altzoko erraldoia jaiotzea, eta efemeridea baliatu nahi dute. Asteasun, berriz, Muskerraren bidea egitasmoari jarraitzea eman nahi diote, zabalduz. Badaude ideia interesgarriak, eta gure lana horixe da: gero eta eskaintza zabalagoa prestatzea, bisitariak erakartzeko.

Udaz gain, urte osorako helburu turistiko egokia da Tolosaldea?

Bai. Zalantzarik gabe, uztailaren, abuztuaren eta Aste Santuan jasotzen ditugu bisitari gehien; bai, behintzat, bertan lo egiten duten turistek dagokienez. Udazkenean, berriz, egunpasak egitera bertaratzen da jendea, agenda oparoak erakarrira. Gure erronka turismo jarria ahalik eta urte sasoi gehienetara zabaltzea da.

Donostian polemika piztu da, turismoa dakarren masifikazioa dela eta. Tolosaldean, garrantzitsua iruditzen zaizu turismo jasagarri horri eustea?

Bai. Jasagarritasun irizpideak txertatuta dauzkagu gure jardunean, eta salatzen gara hori gure bereizgarri izan dadin. Horrela, bertako produktuak sustatzen ditugu, gure natur baliabideak jendeari erakutsiz.

Egia esan, Tolosaldea oso-oso urrun dago saturaziotik, eta mantendu egiten dugu establezimendu kopurua; nekazal turismoa zenbait itxi dituzte, baina berri batzuk ireki ere bai. Ez dago sekulako jendetza eskualdera ekarriko duen azpiegiturarik eta, uste dut, eskaeraren neurrikoak direla eskualdeak egiten duen eskaintza eta udalek egindako inbertsioak.

Oraindik ere badaude eremu berriak proiektu berriak garatzeko, Ibiur inguruko pista perimetrala, esaterako. Aurrekontu handi samarra behar da, eta ea egunen batean hori garatzea lortzen dugun.

Bertakoek ezagutzen al dituzte kanpotarren artean arrakasta duten interesgune horiek?


Askotan kanpora joaten gara, eta bertakoak ez dugu ezagutzen. Adibidez, eskualdeko jendeak beti izan du joera Larraitz aldera joateko, eta uste dut inguru hori ezaguna dela. Aldiz, Topic zentroaren kasuan, esango nuke jende asko oraindik ez dela museora sekula sartu.

Horregatik, Museoen Nazioarteko Egunean ate irekiak antolatzen ditugu, eta guk geuk ere Alde Zaharreko gaueko bisita doan egiten dugu, bertako herritarrek ezagutza horiek jaso ditzaten. Badakigu anfitrioi onenak bertakoak direla, eta bide horretan lan handia dugu egiteko.

Publirreportajea

TOLOSARREN ELKARGUNE SOZIALA

Eskualdeko ostalaritzaren gailurretako bat da 19-90. Historia handiko txokoa da, alabaina, 2008az goerotik traza berritzailea hartzen joan da. Askoren aburuz, afaldu aurretik zintzurra gozatzeko topaleku bilakatu da.



Belarritik belarrirainoko irribarrearekin mintzatzen da Ibon Leunda (Alegia, 1977) bere proiektuez. Gaztetxoetatik ostalaritza bokazio eta arnasbide izan da alegiarrentzat, eta 2008ko urtarrilean, 19-90 tabernaren aldeko hautua egin zuen, bere emaztea bidelagun zuela. Aspaldian olatuaren aparrean dabilta.

Etenik gabeko bilakaera

Pub estiloko taberna da jaiotzez, ordea, urteen poderioz gastropub gisa katalogatu zuten. Egun, gastronomiari gorazarre egite aldera, gastroteka bilakatu da. «Ohartu ginen gauzez lan egiteari utzi gabe, eguneko giroan zentratu behar genuela gehiago, sukaldearen laguntzaz», esan du Leundak. Aldaketa ugari bai, alabaina, oinarria berbera da.

Izan ere, 19-90 betidanik izan da entzute-sua produktua mimo gehiagoz zaindu izanagatik; «prezioak beste tabernetako berberak dira, baina, zerbitzua goitik doa», adierazi du Leundak. Beste taberna andanaz inguratuta egonda ere, eskaintzen den zerbitzua oso ezberdina dela dio tabernaren nagusiak.

«Merkatua guk bilatu dugu, ez dago zer ikusirik gure pintxoan eta besteeen artean». Esate baterako, fruta dehidratatuekin egiten dute lan, eta konbinatuetan ere inor gutxi eskaintzen duen aniztasuna bermatzen dute. Hori da antza 19-90 tabernaren filosofiaren muina, ezberdina izatea, eta hutsunea dagoen lekuan ahalik eta gehien sakontzea. Hori bai, estrategiak estrategia, bertako ekoizleekin duten erlazioa goraka doa, etxeko uztari hegoak emanez.

Ahosabaiarentzat gozagarri

Premia guztiei erantzuten die 19-90 gastrotekaren kartak. Sekula nahastea otu ez zaizkigun osagaiekin eginiko pintxoak, anoak, baita otordu mardulak ere. Ez da samurra ordea, hain zerrenda anitzaren aurrean, erabakia hartzea. «Hanburgesa frantziarra, ezbairik gabe» dio Leundak, eskaintzen duten produktueta kuttunena zein den galdetuta.

Inkontzienteki janari azkar eta ez osasuntsuarekin lotzen da hanburgesa; halaber, 19-90 taberna ahalegindu da erraztasun horretan ez erortzen, eta mimo gehia-

goz prestatzen. «Baserriko ogia apropos egiten dute guretzat, entrekota sartzen dugu tartean, eta beste dozenaka osagai». Hori gutxi ez eta, aitortu du hanburgesen iraultza moduko bat sortu dela, jendea espresuki horretara etortzen dela.

Lau hormen bueltan

Leku estrategikoa da zalantzarik gabe, Euskal Herria plaza. Larunbat arratsetan izaten den giroak, inbidia sanoa pizten dio Tolosakoa ez den bati. «Donostiako lagunak txunditurik geratu ziren; Aste Nagusia kenduta, gutxitan izaten omen da horrelako giroak hiriburuan», dio Leundak harro. Gazteen presentzia nagusitzen bada ere, helduak eta aitona-amonak ere hartzen dute betarik xarma berezia duen plazan erlaxatzeko.

«Hori da gure indargunerik nabarmena, adin-tarte zabala hartzen du gure publikoak, familia osoak ere sarri datoz guregana, polita da zinez horren 'errua' zuk duzula jakitea», goraiatu du nagusiak. Gainera, herriko turismoa laguntzen duen herririk bada, hori Tolosa da; egutegian hamaikatzeko ekitaldi antolatzen dira, eta hein handi ba-

tean, ekintza horiek aparra areagotzen dute.

Mugak malgutzen

Tolosaldeaz harago ere haziak ereintzen ari dira. Ordizian ere beste gastroteka bat dute, 2015eko abenduan ireki zena, hain justu. Horrenbestez, ospea Gipuzkoako bi eskualdeetan hartu du, Tolosaldean eta Goierrin. Hirugarren negozioarekin batera, hirugarren eskualdean ere izango du eraginik, Debagoiengan.

Irailaren 7an, beste senide bat sortuko baita 19-90 gastrotekaren adarrean. Arrasaten irekiko dute gastroteka. «Lokala handia da oso, eta eguneko menua emateko ere aprobetxatuko dugu espazioa», dio Leundak, gogoz, data begi artean duela.

Askok serio botatzen omen dute galdera, «Zergatik ez duk beste bat Tolosan irekitzen Arrasaten beharrean?». Ibonek ezerezen gainetik, gastrotekaren kultura zabaltzea du xede, han-hemenka; eta Arrasaten dagoen hutsunea bere arduratzat kontsideratzen du jada. Urteko egun guztietan zabalik izango dira Tolosako, Ordiziako eta Arrasateko atekak, 19-90ko olatua jende gehiagok har dezan.

KALEAK BUKATZEN DIREN ARTE

Itzea Urkizu

Lur-globoaren mugimendua polita da behatz puntuen azpian. Polita da, bueltak emateari utzi eta hurrengo bidaia azalean sentitzea; hala erakutsi digu, behintzat, zinemak. Baina, are ederragoa da, bidaiarik onena oinen azpian duzula sentitzea: sorterriko kaleetan.

Egunero zapal dezakezulako, postalei begiratu beharrik izan gabe. Egunero bisita ditzakezulako txoko kuttunenak, edo asteburuetarako utzi. Edo, egunero gorrota dezakezulako sorterrria, segundo bakarrean berriro maitatzeko. Nola azaldu, ordea, pasiozko istorio hori, beste sorterrri batetik zurrera bidaiatu duenari?

Pentsa telefono dei bat jaso duzula, zure sorterrrian; demagun, Tolosan: urtetan ikusi gabeko lagun bat besarkatuko duzu bihar. Zalantzarik ez da: tren geltokiak elkartzeko eta agurretarako diseinatu zituzten behinola, eta bertan egingo duzue hitzordua.

San Frantzisko pasealekua eta hango erakusleihoak ez dira nahikoa izango zuen hitz-jarioa koloreztatzeke, eta lehen geldialdia egingo duzue, Beotibar pilotaleku parean: bi lagun eta kafe bana nahikoa izaten dira, galdutako urteak elkarrekin berreskuratzeko.

Ordea, kaleak zapaltzen ere berreskuratu daiteke joandako denbora, eta lorez jantzitako baldosetan barrena iritsiko zarete Triangulora: dena hasten eta bukatzen den lekura. Mende berriko Atautsak iragan mendeetako ateen parez pare daudenera. Herriaren bihotzera.



Badirudi Tolosak bisitari guztiak besarkatu ahal izateko bihotza duela eta, horregatik, ez da bisitariari Alde Zaharreko taupada guztiak sentiaraztea baino ederragorik, bueltan itzul dadin. Zerkausiko azoka edo eskailleren ederra; Korreo kaleko erakusleiho eta joan-etorriak; Errementari kaleko bidezidorra, bakardadearen xarmaz; Letxuga kaleko harlauza gorria, udaletxeko arkupeira iristeko; Andre Maria plaza, urteko 365 egunetan ekainaren 24a gogoraraziz; Artekaile bilakaturiko antzinako errege bidea. Kale Nagusitik; mozzorro egunen hasiera-

puntua, musikari handien izenez; edo, plaza itxura duen arnagune bat, kale estu eta luzeen artean.

Orduan, Plaza Berrira iritsitakoan, hurrek izarrak nola, zuek Plaza Berriko kiosko sabaia begiratu duzue, eta koloreen munduarekin liluratu. Eta, lilurari tiraka jarraituko duzue, bazkari legea plazan bertan eginez. Eguzkiak arratsaldea ondo luzatu arte itxarongo dizue bertan eta, ondoren, Tolosa zapaltzen jarraituko duzue, kafetan bustitako elkarrizketak bestelako edaritan bustiz.

Eta hizketaldiak besarkada bilakatuko dituzue, eta topa egin, behin eta berriz, hitzorduari ahalik eta zuku gehien atera nahian bezala. Elkarrekin postal bat idazi beharko bazenute bezala. Sinatu aurretik, ordea, postaleko kontakizunean txertatu beharreko perla erakutsiko diozu lagunari: Euskal Herria plaza. Aspaldiko hiriburutzak utzitako harribitxi arkitektonikoa edo, bestela esanda, Tolosaren birika soziala. Gaua arnastuko duzue birika horretatik, eta bidaiaren kaleak zapaltzen jarraitu, bukatzen diren arte.



PARETA ARTEAN ZEIN KANPOAN

TOPIC TXOTXONGILOEN MUSEOA

Telefonoa: 943 650 414.

Helbidea: Euskal Herria plaza, 1.
www.topicolosa.com

Udako ordutegia:

Lanegunak: 10:00–14:00 / 15:00–19:00.

Asteburuak eta jaiegunak:

11:00–14:00 / 15:00–19:00.

Astelehenak: itxita.

Museoko leihatila eta sarrera 30 minutu lehenago itxiko dira.

Prezioak:

2 urtetik beherakoak doan.

2–12 urte bitarteko haurrak: 3 euro.

Helduak: 4 euro.

15 pertsona baino gehiagoko taldeei,
TOPIC-en lagunei, familia ugarietara eta

egiaztatu dezaketek jubilatu eta langabe-tuei prezio murriztua egingo zaie.

Bisita gidatua (aurretiaz eskaera egina):

Prezio murriztua + 30 euro gidaria (gidari bakoitzeko 15 pertsona gehienez) euskaraz, gaztelerez, ingelesez eta frantsesez izateko aukera.

Antzetzutako bisita gidatuak:

Helduak: 6 euro.

Haurrak: 4 euro.

Tolosako erdialde historikoan kokatuta, Topic txotxongilolaritzaren inguruan Europan dagoen gun e integral bakarra. Txotxongiloen etxea da, mundu guztiko txotxongiloak ezagutzeko aukera. Uztailean gainera, Amaia Ruiz de Galarretak gidatuta antzerki-bisita izango dira, alde aurretik erreserba egin beharko da.



URMARA MUSEOA

Helbidea: Garmendi-Azpi Baserria,
Azaldegia, 9. 20494 Alkiza.

Telefonoa: 943 694 210.

Helbide elektronikoa: info@urmara.com
www.urmara.com

Kategorizazioak Idolo faltsuak sortuaz, ez digute uzten edertasunaren osotasunean murgiltzea. Honela egilea bere lanaren gainetik geratzen da eta ikuslea arte merkatuaren ekonomia bultzaturik, edertasun naturalaren esentziazik baztertutik geratzen da. (Koldobika Jauregi).

Ogi Berrik etxeko txikientzat txokoa zabalduko du Alegian, abuztuaren 1ean. Zatoz ezagutzera!

ROUTE 33 GOURMET

www.hogeitahamahiru.com

Poligono Bazurka, Nº 1
20260 Alegi Tel. 943 698 604

GOURMET OKINDEGIA GOGOTEGIA KAFETEGIA MUSEOA

Espazioa baso maldatsuan kokatuta dago, haritzak, pagoak, lizarrak... itzala eta freskura. Euskal Herriko beste zenbait txoko bezala eta era berean berezia. Gizakiaren, artearen eta naturaren arteko elkar-erlazioa sortzeko gunea, jarduera intelektual eta pentsamendu kritikoa bultzatzeko gunea...



LARRAULGO EKOMUSEOA

Helbidea: San Esteban plaza.

20159 Larraul.

Telefonoa: 688 803 608.

Helbide elektronikoa:
info@larraulgoekomuseoa.com

Taldeentzako ordutegia: Astelehenetik igandera, aldezturik erreserba eginda (10 lagunetik gorako taldea).
www.larraulgoekomuseoa.com

2009ko udazkenean jaio zen Larraulgo Ekomuseoa, herritarren ekimenez. Larraulgo eta Aiztondo haraneko ekonomia eta gizarte garapenari lagundu nahi dio, ondarea ezagutzea, zabaltzea eta berreskuratzea oinarritzat hartuta.

Larraulgo Ekomuseoa lehenago egindako lan batean ditu sustraiak. Integrazio lan haren helburua herriko baserrietan sakanatutako pieza etnografikoak berreskuratzea zen, eta Erakusketa Areto iraunkorra irekitzeko bidea eman zuen. Han daude ikusgai, 1998tik, bizilagunek emandako piezak. Hala ere, Larraulgo Ekomuseoa museo kontzeptu berri batetik abiatu da. Izan ere, lurralde natural eta kulturalak, batetik, eta biztanle eta bisitarien erkidegoak, bestetik, era aktiboan hartzen dute parte inguruko balibideetan oinarritutako bizimodu jasangarriak bultzatzeko.



ROUTE 33

Telefonoa: 943 698 603.

Helbidea: Bazurka industrialdea, 1. Alegia.

Ohiko ordutegia: Egunero 05:00-01:00. Museoa Route 33-ren ordutegian bisita daiteke modu askean. Bisita gidatu bat erreserbatu nahi izanez gero aurrez hitzartu behar da.

Ogiari buruzko museoa. 7.000 urteko ogiaren historia jasotzen du. Route 33ko goiko solairuan Historiaurretik XXI. mende arteko ogiak izandako bilakaeraren ibilbidetan bidaiatzeko aukera ematen du. Ogiari buruzko ikus-entzunezkoa eta material etnografikoa, besteak beste ere ikusgai.



Patxine Jatetxea

Musker pintxoa daukagu!

Errementari, 1 • Asteasu
943 69 10 25



IBILIZ EZAGUTZEN DA

Eskualdeko hiru herri ezagutzeko aukera eskaintzen dute beste hainbat ibilbidek: Asteasu, Altzo eta Amezketa. Hiru bidelagun ditu bisitariak herri bakoitzean, hurrenez hurren: Bernardo Atxaga, Altzoko Handia eta Fernando Amezketarra.

Imanol Garcia Landa

Aukera bat baino gehiago izan ohi dira herri batera iristerakoan bertako ingurunea eta historia ezagutzeko. Eskualdeko hiru herritan aukera ibiltariak eskaintzen zaizkio bisitariari: Asteasun Muskerraren Bidea, Altzon Altzoko Handiaren ibilbidea eta Amezketan Fernandoren Txokoak ibilbidea.

Herri bakoitzeko herritar ezagunenak dira, hain justu, ibilbidearen bidelagun direnak. Asteasun Bernardo Atxaga idazlea izango da Muskerraren Bidearen gidaria. Altzon, ibilbidearen izenak dioen moduan, Altzoko Handia izango da protagonista. Amezketan, Fernando Amezketarren bitartez paseatu ahalko da bere jaioteritik.

Hiruen bitartez, bere obra eta bizitzaren berri izanez, herriko txokoak bisitatu eta ezagutzeko aukera ematen du. Izan ere, bidaia guztiek ematen dute ezagutza zabalteko modua. Jakin baitakigu, ibiliz ezagutzen dela.



Asteasu
OBABA

BADUGULAKO
ZER KONTATU,
MUSKERRAREN
BIDEA



asteasuko udala

ASTEASU ETA OBABA, BAT EGINIK

Muskerraren Bidea bi kilometro inguruko paseo atsegina da, Bernardo Atxagaren bi lekuak, Asteasu eta Obaba, barrutik ezagutzeko. Elizmendi auzoan dagoen Pello Errota eskolan dago abiapuntua, eta, handik aurrera, musker urdinek gidatzen dituzte ibiltarien pausoak.

Bernardo Atxaga beraren ahotsean jasotako azalpenak lagun izanik (QR kodeen bidez entzun daitezke horiek bideo paneletan), Juan Bautista Agirre eta Lizarraga jenerala bizi izan ziren etxera iritsi daiteke, edota Antonio Arrue jaio izan zenera. Bide-

an *Bi Anai*, *Obabakoak*, *Lekuak*, *Nevadako egunak* edo *Txoriak kolpeka* liburuetako pasarte biografikoenak entzun daitezke.

Ibilbidean hainbat puntutatik igarotzen da bisitaria. Abiapuntuan *Ahozko Tradizioa* da gaia, ondorengoena *Euskara*, hirugarrena *Obaba* izendatu dute, laugarrena *Elizmendi*, bosgarrenak *Sagarrak*, *Txoriak*, *Tximeletak*, *Trikuak*... du izena eta azkenak *Bernardo Atxaga*. Idazle asteasuarraren testuen bidez Obabaren mundu magikora iritsi daiteke, Asteasuko herrigunetik pasean ibiliz.



ALTZOKO HANDIAREN BIZIPENAK

Lehen ere ezaguna zen Migel Joakin Eleizegi Ateaga (1818-1861), Altzoko Handia. Azken urteotan, baina, are ezagunagoa egin da, bere bizitzan oinarrituta haurren operaren diskoa kaleratu delako, hortik txotxongilo antzerki opera emanaldia sortu zuten, eta horrez gain, laster pelikula estreinatuko da.

Altzoko Handia eta bere jaioterrria ezagutzeko asmoz gero eta bisitari gehiago joaten da Altzora. Udalak, eskaera horri erantzun asmoz, eta herritarrek ere bere herrikidearen bizitzaren berri izateko, panel batzuen bidez ibilbidea osatu du. Guztira lau panel

daude kokatuta herrian. Lehenengoa Altzoko Muñoko plazan bertan dago, elizaren ondoan. Bigarregoa Eleizegiren jaiotetxea izan zen Ipintza baserrian dago, hirugarrena Altzoko Azpiko elizaren parean, eta azkena Altzoko Muñoko frontoiaren ondoan, protagonistaren eskulturatik gertu.

Koldo Izagirre idazleak osatu ditu panelen testuak eta Juanba Berasategik egin zituen diseinuak. Altzoko Handiaren bizitza, pasadizo eta irudiak ikusi eta irakurri daitezke. Testuak euskaraz daude eta QR bidez gazteleraz, frantsesez, ingelesez eta katalanez jaso daitezke.

AMEZKETA, FERNANDOREN BEGIETATIK

Orain hiru urte bete ziren 250 urte Fernando Amezketarra, Amezketakako pertsonaia ezagunena, jaio zenetik. Amezketar petoa zen Fernando Bengoetxea Altuna, eta bere bertoaldietan makina bat alditan aldarrikatu zituen bere herriaren bertuteak. Fernandoren bizitzako pasarteak oso ezagunak dira, eta herrian zehar hedatzen dira istorio horien lekuko izan ziren etxeak.

Hainbat jarduerak egin ziren Amezketan 2014an, herriaren 400. urteurrena ere ospatu baitzuten. Ekimen horietako bat izan zen Fernandoren Txokoak ibilbidea osatzea.

Amezketako herrigunetik abiatuta, hiru kilometro inguruko oinezko ibilbidean, Amezketakako herrigunea eta bere ingurua bertatik bertara ezagutu ahal da. Horrez gain, amezketarren nortasun ekitaldiei buruzko informazioa izango da, baita herriko zerbitzuei buruzkoa ere.

Ibilbidea herriko plazan hasten da, hain justu, Fernando Amezketarra izena duena. Ondoren Kotxeta izeneko lekutik pasatzen da, gero Fernando bizi izandako etxeetatik, jarraian Mendiko etxetik, Espilla Saletxetik, eta Ergoena auzotik igarotzen da.



Publirreportajea



ADRENALINA ZUHAIZPEAN

Txindokiko Itzala abentura parkea ingurumen kulturari hegoak zabaltzen ari da, urtez urte, 'slow adventure' filosofia elikatuz.



2010ean zabaldu zuten zuzenean geroztik, mamitzen joan den proiektua da BiziBizikiren Txindokiko Itzala. Zuhaiizpeko abentura zirkuituekin hasi ziren, eta ingurumen on-dareari begirako gunea da, orain, Txindokiren, Nañarriren edo Larrunarriren magalekoa.

Aisialdia jarduera aktiboz janzteko aukera eskaintzen du Txindokiko Itzalak eta, ezinbestean, eguraldi epel eta lehorrena baliatzen dute, atek zabaldu eta Txindokiren magala gozamen bilakatzeko. Horrela, abentura parkearen denboraldia Aste Santuko oporraldian hasi, eta udazkenara birtartekoa izan ohi da, Oihana San Sebastian langileak azaldu duenez: «Aste Santutik

ekainera bitarte, asteburu eta jai egunetan zabaltzen dugu parkea, eta baita udazkenaren ere. Udan, berriz, egunero aritzen gara hemen».

Gipuzkoaren bihotzeko orografiak asko laguntzen diela dio San Sebastianek eta, horrexegatik, ezin zabalagoa da Txindokiko Itzala parkeko bisitarien profila. Batetik, norbanako nahiz familiei txoko atsegina suertatzen zaie, opor egunetarako. Bide beretik, noski, taldeentzako bisitak antolatzeko dituzte, eta ohikoak izaten dira ikastetxe, abesbatza, guraso elkarte nahiz udalekuek bertaratzen diren taldeak. Aipatzekoa da, taldeek astegunetan ere gozatu ahal izaten dutela parkeaz. Haur eta

gaztetxoentzako planez gain, ordea, bisitari helduagoenak ere ase ditzake Txindokiko Itzalak. Horregatik, azken urteotan ezkon aurreko agurretarako taldeak ere hartzen dituzte Larraitzen.

Zuhaiizpean adrenalina sentitu, eta Aralar inguruko parajeek eskaintzen duten guztiaz gozatzera bertaratzen diren gehienak gipuzkoarrak izan ohi dira, euskal herritarrekin batera. Uda garaian, ordea, mugetatik haragoko bisitariak izan ohi dira protagonista, Oihana San Sebastianek azaldu duenez: «Espainiatik jende asko etortzen da, eta frantziarrak izan ohi dira, zalantzarik gabe, gehienak. Noizbehinka errusiarrak eta estatubatuarrek ere etorri izan dira».

Lurra, ura eta haizea gozamen

Oztopoz betetako zirkuitu parke bat izanez jaio zen Txindokiko Itzala, eta oraindik ere bizi-bizirik mantentzen du hasierako nortasuna: «Hainbat zirkuitu ditugu, adinaren eta altueraren arabera banatuta, eta lau urtetik aurrera, edonorentzat zabalik dago», dio San Sebastianek.

Ordea, urtez urte beren eskaintza elikatu eta zabaldu dute Larraizko txokoan: «Arku-tiroa, ginkanak nahiz eskalada egiteko aukera ere eskaintzen dugu». Bide beretik, jarduera aktiboekin batera, inguruko kultura ezagutarazteko egitasmoak ere beren agendan txertatu dituzte, abentura eta ondarea uztartuz. Asmo horren ondorio



dira, esaterako, inguruko baserri nahiz artzain-etxeetara antolatzen dituzten ibilbide tematikoak, eta ilbete gauetako irteera magikoak.

Ingurumen ondarea eta kirola uztartzeko lanean, dena den, Txindokiko Itzala parkeko arduradunek argi dute zein den ezusteko pozgarriena ematen duen jardura: arroila jaitsiera. «Duela hiru urte hasi ginen, eta pixkana-pixkana harrera hobea izaten ari da. Askotan, Pirinio inguruetara jotzen dugu horrelakoak egitera, baina hemen, gure lurretan, badira xarma handia duten txokoak ere», azaldu du Oihana San Sebastianek.

Horrela, Goierrri inguruan egin ohi dituzte arroila jaitsierak, bai helduei begira, baita familiei egokituta ere: «7-8 urteko haurrekin egiteko moduko arroila jaitsiera berezi bat badugu, eta jendea benetan harrituta geratzen da, merezi du».

Jardura horiek guztiak antolatu eta prestatzeko, eskaintzaren pareko taldea dute Txindokiko Itzalan: zabala. Mendi hezkuntzan aditu direnekin hasi, eta kirol hezitzaileak, turismo aktiboan adituak, antropologoak nahiz komunikatzaileak aritzen dira, egunero. Larraitzeko txokoa.

Guztira, *slow adventure* filosofiaren alde aletxo bat jartzearen: «Bertako kultura eta ondarea eskaintzaren zati bilakatzen ditugu, eta saiatzen gara turismo jasangarriarekin bat egiten, betiere, kontuan izanda, zuhaizpean plataformak ditugula: bisitari kopuru jakin batzuk errespetatzen ditugu eta bertako garapena sustatzen dugu».

Txindokiren magaleko gunea hobeto ezagutu eta informazio zehatza eskuratzeko, erabilgarri daude www.txindokikoitzala.com ataria eta 628 94 72 53 telefono zenbakia.

LEITZARANEN, ABENTURA GEHIAGO

Tolosaldetik kilometro gutxira, abenturaren sokari tiraka jarraitzeko aukera eskaintzen du Leitzaran Bisitarien etxeak.



Antzinako trenbideetan barrena bizikleta gainean ibiltzea, ez da egunero egin daitekeen zerbait. Ezta basoan galdu, eta norbere senari eta iparrorrazari jarraituz, bide bat marraztea ere. Bada, Leitzaran Bisitarien Etxeak horretarako aukera eskaintzen die turista abenturazaleenei.

Andoaingo Otieta parkean, Tolosaldetik gertu, bisitarien topagunea dago eta, bertatik, BiziBizirik ikastetxe, enpresa nahiz taldeentzako eskaintza bereziak antolatzen ditu, norbanakoei begirako jarduerekin batera. Horrela, Uraren Interpretazio Zentroa, arrantza ikastaroak, ibilbide tematikoak, zentral hidroelektrikora irteerak, orientazio saioak, bizikleta txango eta alokairua nahiz GPS ikastaroak egiteko hamaika hitzordu antolatzen dituzte. www.leitzaran-andoain.eus atarian nahiz 943 30 09 29 telefonon eskura daiteke informazio zehatza.

BERDETIK BERDERA

Tolosaldeak kolore bat baldin badu berdea dela ezin zalantzan jarri. Berdetik berdera, tonu ezberdinak pasaz, eskualdea ikusteko eta ulertzeko modua ere bada. Tolosaldea eta natura binomioa berdetasun horren erakusle dira.

Naiara Roldan de Aranguiz

Tolosaldea maisutasunez zainduta dago, sakoneko eremura begira daude eskualdeko tontorrak. Goitik beherako ikuspuntua, eremu zabal berdearena, izango du bisitariak Txindoki, Hernio edo Uzturre bezalako gailurrak menderatuta. Gora iritsi bitarteko bide malkartsuak disfrutatu zein sufritzekoak dira natura maite duen mendizale horrentzat.

Aparteko begiratoki horietatik, kapa berdea naturala izateaz gainera, landutakoa ere badela konturatu da bisitaria. Eskualdeko baserriarrek badute erantzukizuna Tolosaldeak aurkezturiko argazki panoramiko horretan. Baratzeak, baserriak, sorak, animaliak nekez azalduko lirarteke argazkian baserriarren lanik gabe.

Berde kolorea goitik begirada batean atzemateko modua aurkeztu badugu ere, gertutik ikusteko tenorea ere zabalduko diogu bisitariari. Aldapa luzeak alde batera utzi eta ibilbide eramangarriagoak ere baditu Tolosaldeak mendi inguruan galtzeko. Galtzeko baino, bidean jartzeko.

Hamaika aukeren artean hiru adibide baino ez dira ondorengoak: Abaltzisketa eta Larraitz lotzen dituen bide irisgarria, Alkizako baserri-paisaiaren ibilbidea edota Ibiur urtegia inguratzen duena. Lehenengoren hormigoï armatuzko lurzuorak haur kotxeekin edo gurpildun aukiekin pasea-



tzeko aukera ematen du; bigarrenagoak baserri-paisaiaren inguruko gogoeta bultzatzeko xedea du eta hirugarrenagoan berdearen argitasunak uraren sakontasunarekin bat egingo du, bidea freskatuz.

Uretara gerturatzeko beste bidea, ibaiek berak emango dio txangozaleari. Oria ibaia-

ren berreskuratze lanek txorien bistaratzeari ahalbidetzeaz gain, ur kiroletan trebatzeko aukera ere ahalbidetu dute. Tolosako Zerkausiarren inguruko zonaldea horren testigu.

Berdetik berderako bide honetan, berdetasuna mantentzeko ezinbesteko elemen-

tuetako bat jasangarritasuna da. Nazio Batuen Erakundeak 2017. urtea Garapenerako Turismo Jasangarriaren Nazioarteko Urtea izendatu badu ere, urtetik urterako apustuak du balioa zeregin horretan. Tolosaldean turismoa era jasangarrian besterik ezin baita ulertu, turismo ekosistema batean.



 **Aralar
Kirolak**

Laskorain kalea, 7
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
943 65 49 16
aralarkirolak@hotmail.com



OSTATU GIDA

NEKAZALTURISMO ETA LANDETXEAK

Zabale. Aduna.

943 690 825 | 657 730 108
www.nekatur.net

Segore Etxeberri. Albiztur.

943 580 976
www.nekatur.net

Lete. Alkiza.

943 691 264 | 671071514
www.nekatur.net

Haundiko. Amezketeta.

943 654 864 | 943 672 531
www.nekatur.net

Saskarate. Asteasu.

943 690 446 | 679 808 373
www.nekatur.net

Ugarte. Asteasu.

943 692 722 | 657 725 351
www.nekatur.net

Zumargain. Asteasu.

671334 101
info@zumargain.com

Argiñenea. Berastegi.

943 683 371 | 638 182 998
arginene@gmail.com | www.nekatur.net

Bazterretxe. Berastegi.

943 683 386 | 635 726 687
www.nekatur.net

Telleri. Berrobi.

943 683 427 | 671071512
www.nekatur.net

Mikelenea. Gaztelu.

607 389 937
ostolazajesus@gmail.com

Korteta. Tolosa.

639 489 833
info@agroturismokorteta.com
www.nekatur.net

Zuloaga Txiki. Tolosa.

943 650 036
www.zuloagatxiki.com

Akulebi. Amasa - Villabona.

943 693 034 | 639 907 018
akulebi@hotmail.com

Alustiza. Amasa - Villabona.

943 690 361
www.nekatur.net

Urresti. Amasa - Villabona.

943690444 | 653722363
www.agroturismourresti.com

Ziasoro. Zizurkil.

943 693 143
ziasoro@yahoo.es | www.nekatur.net

Nekola. Zizurkil.

943 692 051
www.nekola.com

PENTSIOAK

Benta Aldea. Anoeta.

943 654 079 | 607 813 274
www.bentaldea.com

Ikaztegieta Ostatu. Ikaztegieta.

943 655 892
www.ikaztegieta.eus/eu/ostatu

Karmentxu. Tolosa.

943 673 701
pkarmentxu@hotmail.com

Oyarbide. Tolosa.

943 670 017
info@pensionoyarbide.com

HOTELAK

Iriarte Jauregia**.** Bidania - Goiatz

943 681 234
info@iriartejauregia.com
www.iriartejauregia.com

Olazal Hotela.** Bidania - Goiatz

943 681 228
www.hotelolazal.com

Oria Hotela*. Tolosa

943 654 688
hoteloria@hoteloria.com

APARTAMENTUAK

Amalur House. Tolosa

943 442 867 | 661675 400
http://peoplereals.es

Lete. Alkiza

943 691 264 | 671071514
asun.murua@gmail.com

TURISMO ATERPETXEA

Etxalburu. Abaltzisketa

943 653 082

Uztartza. Aduna

943 693 481
info@albergueuztartza.com

Otabardi. Asteasu

649 062 674 | 663048 275
www.otabardi.eus

Zartagi. Ballarain

943 163 076

Ostatua. Leaburu

943 671 548

AUTOKARABANENTZAKO ZERBITZUGUNEA

Tolosa. San Esteban auzoa.



San Esteban plaza, z/g. 20159 Larraul. 943 691 855



Goiburu, 8
20150 ADUNA (GIPUZKOA)

943 692 452
aburuza@sidrasaburuza.net

ABURUZA
SAGAROTEGIA

www.sidrasaburuza.net

